

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 80 GIZARTE POLITIKAK
Programa: 230801 BERRIKUNTZAREN,
KUDEAKETA SISTEMEN ETA
EBALUAZIOAREN
ZUZENDARITZA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 80 POLÍTICAS SOCIALES
Programa: 230801 DIRECCIÓN DE
INNOVACIÓN, SISTEMAS DE
GESTIÓN Y EVALUACIÓN

PROGRAMAREN MEMORIA

MEMORIA DEL PROGRAMA

I. MEMORIA

Gizarte Politiketako Sailaren aurrekontuan Berrikuntzaren, Kudeaketa Sistemen eta Ebaluazioaren Zuzendaritza sartzen da, Arabako Lurralde Historikoan gizarte-zerbitzuak antolatzeko eredu berri bat gidatu eta kudeatzeaz arduratzen dena.

Kudeaketa-eredu eraginkorrago eta efizienteago bat garatzeaz eta kalitate goreneko zerbitzu publikoak emateaz arduratuko da, Gizarte Politiketako diputatuari laguntzeko, sail horri atxikitako bulego, zerbitzu eta erakundeak zuzendu, kudeatu eta koordinatzeko eginkizunean.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

- Egoitza-zentro batean errealitate birtualeko betaurrekoak ikertzeko eta aplikatzeko proiektu pilotu bat egin da.
- Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako bi zentro diseinatzeko eta gauzatzeko proiektu bat egin da, dagoeneko martxan dagoena.
- Samaniego egoitzaren birmoldaketa osoa egin da. Eraikin berri horrek funtzionalitate berriak ditu erabiltzaileen, familien eta arreta ematen dieten talde profesionalen ongizatearen inguruan.
- Lakua Egoitzan jarraitu da adimen artifiziala ikertzeko eta aplikatzeko proiektu pilotuarekin, demenzia aurreratu duten pertsonen mina detektatzeko, elektroentzefalogramaren bidez.
- Urtean zehar, Etxean Bai proiektuaren pilotajeari eutsi zaio, 50 erabiltzaileekin eta senideekin, eta erreferentzia-zentro irisgarriago bat ireki da hiriaren erdigunean.
- Irisgarritasun- eta hobekuntza-obren proiektua hasi da Hazaldi adingabeen larrialdietako harrera-zentroan, eta jokabide-nahasmendu larriak dituzten adingabeentzako zentro bat osatu da.

I. MEMORIA

En el Presupuesto del Departamento de Políticas Sociales se incluye la Dirección de Innovación, Sistemas de Gestión y Evaluación, encargada de liderar y gestionar un nuevo modelo de organización de los servicios sociales en el Territorio Histórico de Álava.

Encargada del desarrollo de un modelo de gestión más eficaz y eficiente, la prestación de unos servicios públicos de la máxima calidad, en apoyo al Diputado de Políticas Sociales en su función de dirección, gestión y coordinación de las dependencias, servicios y organismos adscritos a dicho Departamento.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

- Se ha realizado un proyecto piloto de investigación y aplicación de gafas de realidad virtual en un centro residencial.
- Se ha llevado a cabo un proyecto de diseño y ejecución de dos centros para personas con discapacidad intelectual, ya en marcha.
- Se ha llevado a cabo la total remodelación de la residencia Samaniego, un nuevo edificio con nuevas funcionalidades alrededor del bienestar de personas usuarias, familias y equipos profesionales que les atienden.
- Se ha continuado en la Residencia Lakua con el proyecto piloto de investigación y aplicación de inteligencia artificial en la detección del dolor en personas con demencia avanzada, mediante electroencefalograma.
- A lo largo del año, se ha mantenido el pilotaje del proyecto Etxean Bai con 50 personas usuarias y familiares y se ha procedido a la apertura de un nuevo centro de referencia más accesible en el centro de la ciudad.
- Se ha iniciado el proyecto de obras de accesibilidad y mejora en el centro de acogida de urgencias de menores Hazaldi y se ha completado el de un centro para menores con graves trastornos de conducta.

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 80 GIZARTE POLITIKAK
Programa: 230801 BERRIKUNTZAREN,
KUDEAKETA SISTEMEN ETA
EBALUAZIOAREN
ZUZENDARITZA

- Desgaitasun intelektuala eta garapenaren nahasmendu orokortuak dituzten pertsonen zahartzeari buruzko ikerketa-zentroa ezartzen, diseinatzen eta sortzen jarraitu da.
- Adinekoen egoitza-zentroetako kalitate-adierazleen proiektua garatzen jarraitu da. Horren garapenari esker, estatistika ofiziala proposatu da EAE osorako, Eustatekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta.
- Araba a Punto proiektua garatzen jarraitu da, ALHn nahi ez den bakardadeari aurre egiteko estrategia, DBHko zikloa duten ikastetxeei zuzendutako gida bat aurkeztuz eta bidaliz, eta etorkizuneko ekintza berriak aztertuz, adinekoei eta nerabeei dagokienez jada egindakoen osagarri.
- Harremanetan oinarritutako arreta-eredua (Gizarea) garatzen eta ezartzen jarraitu da, eta eredu horren ezarpena indartu da – dagoeneko ezarrita dauden zentroetan ez ezik – landa-eremuko adinekoen egoitzetan eta desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzak dituzten etxebizitzetan.
- Landa-eremuan (Maeztu, Guardia, Urkabustaiz) "tokiko zaintza-ekosistemak" egiteko kontratazioari ekin zaio.
- ALHren etorkizuneko zaintza-agenda egiteko gomendioen lankidetzaproiektua gauzatu da.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 80 POLÍTICAS SOCIALES
Programa: 230801 DIRECCIÓN DE
INNOVACIÓN, SISTEMAS DE
GESTIÓN Y EVALUACIÓN

- Se ha continuado con el establecimiento, diseño y creación colaborativo del futuro Centro de Investigación en Envejecimiento de personas con discapacidad intelectual y trastornos generalizados del desarrollo.
- Se ha continuado avanzando en el desarrollo del proyecto de indicadores de calidad en centros residenciales de personas mayores, cuyo desarrollo ha permitido el que se proponga estadística oficial para toda la CAPV en coordinación con Eustat y Gobierno Vasco.
- Se ha continuado con el desarrollo del proyecto Araba a Punto, estrategia para combatir la soledad no deseada en el THA, con la presentación y envío de una guía dirigida a centros escolares con ciclo de ESO y el análisis de nuevas acciones futuras que complementen las ya realizadas en cuanto a personas mayores y personas adolescentes.
- Se ha continuado con el desarrollo e implementación del modelo de atención centrado en las relaciones, Gizarea, reforzando su implementación, -además de en los centros ya implantados-, en las residencias de personas mayores rurales y en las viviendas con apoyos para personas con discapacidad.
- Se ha iniciado la contratación para la realización de 3 "ecosistemas de cuidados locales" en el ámbito rural (Maeztu, Laguardia, Urkabustaiz)
- Se ha llevado a cabo el proyecto colaborativo de recomendaciones para la realización de la futura agenda de cuidados del THA.